


ARGIA.EUS/LARRUN

AFRIKA

EGUNGO GATAZKEN SUSTRAI KOLONIALAK



LARRUN #288

EGUNGO GATAZKEN SUSTRAI KOLONIALAK

EGILEAK | **LEIRE ARTOLA ARIN ETA MARIA ORTEGA ZUBIATE**

AZALA | **JOSEBA LARRATXE JOSEVISKY**

Hain zabala baina europar zurientzako hain ezezaguna den Afrikak lerroburuak hartu ditu azken bolada honetan. Liskarrak, hildakoak, Polizia, agintariak, herritarrak, gazteak... egun gutxi batzuetan fokua hara bideratzen da, baina notiziak iritsi bezala badoaz, eta ahazten dira Afrikako herrialdeak. Ahazten zaigu kolonialismoaren harrak lur, aire eta ozeano hustu dizkiela. Erreportaje honetan kontinenteko egoera ezegonkorraren jatorri batzuk azaltzen dira. Izan ere, gatazkak era isolatuan ulertu ordez, testuinguru jakin batean kokatzen laguntzen du. Gakoe-tako bat da Afrikan independentzia prozesua igaro berri dela, eta oraindik inperialisten men-

pekotasuna oso presente dagoela. Bide luzea dirudien arren, azken urteotan urrats esanguratsuak ematen ari dira askapen mugimenduak.

Afrika azalez aldatzen ari da, berritzen, estutzen duen ezkututik irteten. Bere orbainetatik, kanpotik ezarritako josturetatik ari zaio eteten azala, eta duela urte asko ereindako kortsea zaitan puskatzen ari da. Ez da metafora. Zenbait herrialde benetan ari dira iraultzen, borrokatzen, bortxaren indarrez jarritako sistemei aurre egiten; edo horiek dira, behintzat, beren aldarriak. Europako kolonialistek Afrikatik “alde egin” eta sei hamarkada geroago, neokolonialismoaren aurkako oihuek gero eta oihartzun handiagoa hartu dute herrialdez herrialde.

LARRUN HILABETEKARI MONOGRAFIKOA · ARGIAren 2.839 zenbakiarekin banatua.

JABEA: KOMUNIKAZIO BIZIAGOA S.A.L. **HELBIDEA:** ZIRKUITU IBILBIDEA, 15. PABILOIA 20160 LASARTE-ORIA **TELEFONOA:** (00 34) 943 37 15 45

POSTA ELEKTRONIKOA: LARRUN@ARGIA.EUS **INPRIMATEGIA:** ANTZA KOMUNIKAZIO GRAFIKOA **DISEINUA:** MAITANE GARTZIANDIA

2023ko irailaren 24a

Askok diote anakronismoa dela egungo Afrika eta kolonialismoa aditz denbora berberean jokatzea. Ikusi besterik ez dago Frantziako presidente Emmanuel Macronek 2017an Burkina Fasora egindako bisita batean esandakoak: “Hitz egiten didazue Frantzia oraindik botere kolonial bat balitz bezala, baina nik ez dut nahi Burkina Fasoko unibertsitateko elektrizitate arazoez arduratu. Hori presidentearen lana da”. Baina, Macronen trufetatik haratago, inperio kolonialak izandakoek jarraitzen dute Afrikan agintzen; are, beraiek utzitako sistemek bere horretan jarraitzen dute. “Kolonialismoa ez da bukatu, forma aldatu baino ez du egin”, laburtu digu egoera Dagauh Komenan



**“BERLINGO
KONFERENTZIAK
OINARRIAK JARRI ZITUEN
POTENTZIA KOLONIAL
BAT LURRALDE BATEN
'JABE' IZATEA ZILEGI
BIHURTZEKO”, DIO
KOMENANEK; HORRELA,
BAKOITZAK BERE LUR
ESPARRUA IZANGO
LUKE, ETA EZ LITZATEKE
GATAZKARIK IZANGO**

(Boli Kosta, 1989) historialari eta giza eskubideetan adituak. Egungo gatazkak perspektibatik ikusteko gako interesgarri batzuk eman dizkigu.

1960ko eta 1970eko hamarkadetan Europa joan egin zen, itsasoa atzera gurutzatu zuen eta ahaztu zituen bere betebeharrak independentzia prozesuak heltzearekin batera. Baina, alde egin bazuen ere, begi bat eta esku bat bertan utzi zituen eta jarraitu zuen kolonia izan zituenean gain kontrola izaten; batez ere, bertan utzi zuen egoera ezin zelako irauli. Afrika kontinente erraldoia da, eta ez da egoera bera Hegoafrikan eta Marokon, baina kolonialismoaz eta independentzia prozesuez berba egitean, oro har, Saharaz hegoaldeko herrialdeak



DAGAUH KOMENANEK UTZIA

DAGAUH KOMENAN Boli Kostako historialaria eta giza eskubideetan aditua da.

aztertzen dira; batez ere inperio kolonial frantsesaren parte izan zirenak. Izan ere, egungo mapa geopolitikoari begiratuta, ikusi besterik ez dago zeintzuk diren iraultzak eta gatazkak bizitzen ari diren herrialdeak: gehien-gehienak *Françafrique* delakoaren parte dira, eta hori ez da kasualitatea.

Historian atzera begiratuta, 1834ko azaroaren 15era joanda, Otto Von Bismarckek deitutako Berlingo Konferentzia erabakigarri horren mahai bueltan ez zeuden frantziarrak eta belgikarrak soilik, ezta gutxiago ere. Europako potentzia gehientsuenak eta AEBak eurak ere bazeuden: independentzia lortu eta ehun urte eskasera. Datorren urtean, 2024an, beteko ditu 140 urte Alemaniako agintariak bilera horretara deitu zituela, euren hegoaldera zegoen kontinente horretako negozioak nolabait arautu nahi baitzituen: konferentziaren aktan, “Afrikara zibilizazioa” eramateko helburua azpimarratu zuen. Berlingo Konferentzia garrantzitsua izan zen historian, baina ez, hainbeste, kontinentearen barne mugak zehaztu zituelako; potentzien arteko balizko gatazkak saihestu zituelako baino. “Berlingo Konferentziak oinarriak jarri zituen potentzia kolonial bat lurralde baten ‘jabe’ izatea zilegi bihurtzeko”, azaldu du Komenanek; horrela, bakoitzak bere lur esparrua izango luke, eta ez litzateke gatazkarik izango.

Berlingo mahai hartan zabaldu zuten mapa erraldoian toponimia bizkor aldatu zuten, eta hori da, hain zuzen ere, europarren presentziaren metaforarik handiena. *Libreville* eta *Freetown* (herri librea, euskaraz) ugaritu ziren, bakoitza bere potentziaren hizkuntzan. Baina ez zen gauza bera *Libreville* edo *Freetown*, ez zelako bera inperio frantsesa edo britainiarra. Biek ustiatu zuten, muturre-



BIGAREN MUNDU GERRA OSTEAN SARTU ZUTEN CFA MONETA HERRIALDEETAN, KOLONIETAN UGARITZEN ARI ZEN MUGIMENDU INDEPENDENTISTA ETA ANTIKOLONIALISTEI AURRE EGITEKO



AFRIKAKO HERRIALDEEN AZPIEGITURAK, KOLONIALISMO GARAIAN SORTUTAKOAK, BIDERATUTA DAUDE EKONOMIA EUROPAREKIKO GUZTIZ MENPEKOA IZAN DADIN


raino, kontinentea; baina batak eta besteak utzi duen geroa ez da bera izan. Afrikako independentzia prozesuez berba egitean, historialari askok Ghanako kasua hartzen dute lehen herrialdeztat, 1957an, Saharaz hegoaldeko lehena izateagatik. Ez da kasualitatea, ordea, Saharaz hegoaldeko lehene herrialde independentea inperio kolonial britainiarreko parte izatea. “Britainiar sistema kolonialean gizarte banaketa handia zegoen. Kolonizatuak ezin zezaketen espero kolonizatzaileen mailara heltzea: eskala sozialean gora egin zezaketen, baina euren

markoaren barruan egiten bazuten. Independentziak heldu zirenerako, mundu anglosaxoikoek bazuten beren antolamendua eta beren erara egin zuten. Horregatik, Ghanarentzat errazagoa izan zen koroa britainiarrekin apurketa bat egitea”, dio Komenanek.

'FRANÇAFRIQUE' EDO NOLA ESAN NEOKOLONIALISMOA

Frantziako kasuan, ostera, ez zen apurketa hori egon. Eta hori da Afrikako arazoan gakoetako bat, kontsultatutako adituek diotenez: “Guztiz ezinezkoa da Hego Globalako norbaitek, Gehiengo Globalak edo ‘Globo Globalak’ Afrikako egungo arazoak ulertzea neokolonialismo frantsesaren funtzionamendua ulertu gabe”, ziurtatu du Pepe Escobar kazetari eta analista geopolitiko brasildarrak, *Francia no tiene tregua ante el surgimiento de una “nueva África”* (Frantziak ez du atsedunik ematen “Afrika berri” baten sorreraren aurrean) artikuluan.

Sistemaren jarraipenaren zantzuak elementu askotan ikusten badira ere, agerikoena, eta protestetan gehien errepikatzen dena, CFA monetarena. Afrikako hamalau herrialdeetan dago moneta hori, Frantziak, arestian botere koloniala zenean, ezarri zuena: Benin, Burkina Faso, Boli Kosta, Ginea Bisau, Mali, Niger, Senegal, Togo, Kamerun, Afrika Erdiko Errepublika, Txad, Kongoko Errepublika, Ginea, Gabon eta Ekuatore Ginea. CFA siglen bilakaerak argi uzten du kolonialismoaren itxura aldaketa, baina ez praktika aldaketa. Hain zuzen, 1945ean moneta sortu zutenean CFAk *Colonies Françaises d'Afrique* (Afrikako Kolonia Frantsesak) esan nahi zuen; 1958tik, *Communauté Française d'Afrique* (Afrikako Komunitate Frantsesa) deitu zioten; egun, *Coopération Financière en Afrique* (Afrikako Kooperazio Finantzariora) bihurtu dute CFA.



NOLA EUROPAK AZPIGARATU ZUEN AFRIKA liburua egun kontinentea jasaten ari den zapalkuntza ulertzeko baliagarria da. Azpiegitura guztiak kolonoentzat eraiki zirela azpimarratzen du.

Bigarren Mundu Gerra ostean sartu zuten moneta hori herrialdeetan, kolonietan ugaritzen ari zen mugimendu independentista eta antikolonialistei aurre egiteko. Moneta horren kontrolerako mekanismoa zera zen: indarrean sartu zenean Frantziako frankoarekiko trukerako interesa finkatu zutela. Alegia, Frantziako Banku Zentralak kontrolatzen zuela hamalau herrialde horietako monetaren balioa. Eta, horretarako, Afrikako herrialde horiek euren trukerako daukaten erreserben %50 ordaindu behar izaten zioten. Hau da, atzerriko

monetetan zutenaren erdia bidali behar zuten Frantziara. Escobarrek ohartarazten duenez, Frantziak erreserba afrikarrak erabiltzen ditu kapital frantsesa izango balira bezala, Europar Batasunari zein Europako Banku Zentralari ordaintzeko ere bai.

Aipagarria da zenbait agintarik behin baino gehiagotan aldarrikatu izan dutela Afrikako moneta bateratu bat eratzea. Esaterako, Muammar Gaddafi Libiako buru zenak 2008ko krisi finantzarioaren ostean proposatu zuen errearekin lotutako moneta panafrikarra eratzea, Pepe

Escobarrek gogora ekarri duenez. Europaren eta Mendebaldearen krisia aprobetxatu nahi zuen Gaddafi: Libiak 150 tona urre inguru zituen gordeta, eta horrek (eta beste apur batek) ahalbidetuko ziokkeen txanpon panafrikar horren finantza tokia Tripolin izatea. Urrezko erreserba subiranoan oinarritutako sistema ezarri nahi zuen, eta Afrika-ko estatu asko Mendebaldeko mendekotasun finantzariotik askatzeko modua izango zen. Mendebaldeak Gaddafiren asmoak blokatu zituen alde guztietatik, eta azken urteetan argitaratzen ari den informazioak berresten du Frantziaren jarrera.

Batetik, 2015ean, Hillary Clinton AEBetako estatu idazkari ohiaren pirateatutako mezu elektronikoek erakutsi zuten Frantziak Libiako petrolio ekoizpenaren proportzio handiagoa lortzeko nahia zuela, eta Afrika iparraldean Frantziaren eragina handitzea eta Gaddafiren planak blokeatzea zirela helburuak. Bestetik, irail honen hasieran Giuliano Amato Italiako lehen ministro ohiak elkarrizketa batean aitortu du 1980an Italian 81 hildako eragin zituen “hegazkin-istripua” ez zela istripua izan, baizik eta Frantziako Gobernuak jaurtitako misil baten ondorioz suntsitu zela, Gaddafi hiltzeko saiakeran; Libiako buruzagia, baina, jakinaren ganean zegoen, eta ez zuen hegaldi hori hartu. Frantziako agintariak begiak, eskuak eta armak kolonia ohietan iltzatuta dituzte oraindik, aipatutako adibideek ikusarazi dutenez, eta ez dute planen artean CFA moneta deuseztatzea.

Izan ere, independentzia lortutakoan ere mantendu izan dute, ostera, moneta hori. Askok egonkortasunerako gako gisa defendatzen dute, moneta indartsu bat den heinean. Aurka daudenek, berriz, diote Frantziak kolonia ohienganako kontrola ezartzeko metodo nagusia dela; baina, era berean, ez dauka trukerako

mugarik, eta herrialdeetako agintari eta elite ekonomikoek nahi beste dolar eta euro erosten dituzte. Iritzi hori dutenetakoa da Komenan ere; bere hitzetan, *Françafrique* delako kolonialismoari jarraipena ematen dion elementu nagusia da moneta.

AZPIEGITURAK KANPORA BEGIRA

Herrialde horietako ekonomia, beraz, Europara begirakoa da erabat. Baina hori ez da gertatzen soilik monetarengatik, herrialdeen egitura osoa horretara bideratuta dagoelako baino. Afrikako herrialdeen azpiegiturak, kolonialismo garaian sortutakoak, bideratuta daude ekonomia Europarekiko guztiz mepkoa izan dadin. Walter Rodney historialariak, bere *How Europe Underdeveloped Africa* (Nola Europak azpigaratu zuen Afrika) liburu famatuan azaltzen du kolonia garaian sortu ziren azpiegitura guztiak kolonoentzat zirela, eta sortu ziren garraiorako azpiegitura guztiak Europari begirakoak zirela: “Garai kolonialean ez ziren eraiki errepideak afrikarrek beren lagunak bisitatu zituzaten, edota, okerragoa dena, Afrikako barne komertzioa errazteko. (...) Errepide eta trenbide guztiak itsasora heltzen ziren. Urrea, manganesoa, jadea eta kotoia ustiatzeko sortu zituzten”. Berarekin bat dator Komenan, eta gehitu du koloniak merkea izan behar zuela: “Bere helburua da bertako baliabideak bereganatzea eta bertako biztanleria kontsumitzaile bihurtzea. Agintari kolonialek egindako inbertsio guztia ustiapenari begirakoa da: trenbidea ez da jendearentzat, baliabideak ustiari eta itsasora eramateko da”.

Herrialde horien arazoa da, os-tera, azpiegitura horiek ez direla aldatu. Trenbide eta bide horiek jarraitzen dute ustiapenari eta esportazioei begira, eta herrialde horien geroa hipotekatu dute. “Herrialde



AL JAZERA

BURKINA FASOKO PROTESTAN Herritarrak Frantziako atzaparretatik askatzeko protestan ari dira, eta euren kolono ohiak herrialdetik joateko eskatzen, gero eta indar handiagoa hartzen ari den askapen mugimenduaren adibide.



AGINTARI AFRIKARREK EZ DUTE NAHI SISTEMA ALDATZERIK, DEMOKRAZIA BATEN INGURUKO HAUSNARKETA IDEOLOGIKORIK EGITERIK, KOLONOEK UTZITAKO SISTEMAK BERAIEI ON EGITEN DIELAKO

horien gaur egungo ekonomiak sistema bera jarraitzen du, oso lankidetzat ekonomiko gutxi dago herrialde afrikarren artean, nahiz eta hitzarmen asko sinatu: euren baliabide ekonomiko gehienak Europara edo AEBetara bideratuta daude, azpiegitura osoa diseinatuta dagoelako produktua itsasora eraman eta herrialdetik ateratzera”, dio bolikostarrak.

Escobarrek Frantziak kontrolpean dituen zenbait adibide jarri ditu: “Bolloré konglomeratu frantsesak portuak eta itsas garraioa kontrolatzen ditu Mendebaldeko Afrika osoan; Bouygues/Vinci-k eraikuntza eta obra publikoak; Frantziak uraren eta elektrizitatearen banaketa menderatzen ditu; Totalek interes handiak ditu petrolioan eta gasean. Eta gero France Télécom (Orange bezala berrizendatua) eta banku handiak daude: Société Générale, Crédit Lyonnais, BNP-Paribas, AXA (aseguruak), etab”.

ASIMILAZIOA ETA BORTXA

Dena dela, sistema ez da betikotzen ekonomiarekin soilik: sistemak behar du jendearen buruan sartu eta sinesgarri izatea; eta horrela ere lortzen ez badu, behar du bortxa. “Inperio kolonial frantsesaren kasuan asimilazio egoera bat egon zen: elite afrikar batek, tituluak zituenak, europar elitearen zirkuluetan sartzeko aukera zuen”, azaldu du Komenanek. Asimilazio horrek ekarri zuen independentzia prozesuak hasi zirenean ez egotea

banaketa sakon bat, inperio britainiarrean gertatu zen moduan, europarren eta afrikarren artean; europarrek ezarritako sistemaren parte ziren jada Afrikako eliteko kideak. Horrela, sistema hori mantendu zen: “Herrialde frankofonoetan sistema koloniala mantentzeko ahalgina egon da, bakarrik aktoreak aldatuta. Gaur egun dagoen sistema bera da, baina agintzen dizuna ez da europarra, afrikarra da”.

Komenanek azaldutako asimilazio hori, elite europarrekiko muturreko hurbiltasun hori, ikusten da agintarien jokaeran, berak azaldutakoaren arabera. Bere hitzetan, hori da sistema neokolonialista mantentzeko beste arrazoietako bat: elite afrikarrek boterean mantentzeko egiten dutena. “Afrikako eliteak gainontzeko biztanleria osoa ezjakintasunean bizitzera derrigortzen du; sistema horretatik ateratzeko

edozein baliabide mozten du”, azaldu du historialariak. Agintariek ez dute nahi sistema aldatzerik, demokrazia baten inguruko hausnarketa ideologikorik egiterik, sistemak berai on egiten dielako.

Baina aipatutako bi puntu horiek nahikoa ez balira, eta jendeak eta erakundeek benetan nahiko balute irauli orain artekoa, parean izango lukete botere kolonialaren horma, bere horretan: Frantziako armada. “Frantziako armadaren presentzia militarrek Afrikako gobernuen gaineko sekulako kontrola ezartzen du”, laburtu du historialariak.

Aipagarria den beste kontu bat da, Komenanen ustez erabakigarria ez bada ere, herrialdeen mugen eztabaida. Askok esan izan dute kontinentean dauden arazo asko bertako mugen ia ausazko zatiketengatik sortu direla; historialariaren ustez, baieztapen hori

egoera “sinpletzea” da. Berak onartzen du muga horiek egin zituztenean elkarrekin zerikusirik ez zuten komunitateak batu zituztela: baina komunitate horiek entitate politikoak ziren eta dira gaur egun, eta Afrikako herrialdeak kolonialismo garaiaren aurreko entitate politikoak eratuta daude.

Arazoa ez da hori, bere hitzetan, muga horien barruan ezartzen den sistema baino: sistema zentralizatu bat ezarri dute, Frantziako Bosgarren Errepublikaren sendi, entitate bakoitzaren nolakotasunak eta autonomia errespetatu barik. Horrek sortu ditu arazoak, komunitateak banandu eta estatu zentralizatzaile baten menpeko bihurtzea, eta ez mugak bere horretan. “Herrialde frankofonoetan dagoen sistemak eragiten du komunitateen artean gatazka egotea boterera heltzeko. Horrek eragin du gaur egun ikus-



KWAME NKUMAH. Panafrikanismoaren Casablancako taldearen buru Nkrumah zen, eta 1885ean inposatutako mugak gainditu eta Afrika federazio handi batean elkartu behar zela sinesten zuen.

BERLINGO HITZARMENA

1885ean sinatu zuten Berlingo Hitzarmena Europako agintariek, eta Afrika "eskuaira eta kartaboiz" zatitu zuten, inperio bakoitzak bere zatia izan zezan, euren arteko gatazkak saihesteko.



ten den tribalismoa". Kontua da, berak dioen gisan, komunitatearekiko sentimendua nazioarekikoa baino sendoagoa dela: "Jendeak ulertzen du boterera heltzen bada, dirura heldu daitekeela, eta horrek bere eskualdeari onura egin diezaikeela".

BETAURREKO KOLONIALISTAK

Pasa berri den 2023ko udan Afrikako mendebaldea albistegietan agertu da barra-barra: bateko Senegal, besteko Niger edo Mali izan dira protagonista, eta herrialdeetako ezegonkortasuna nabarmen-

du dute goiburuek, protesten irudi bortitzez lagunduta. Baina Kome-nanek azpimarratzen du, Afrikako gatazkei garrantzirik kendu nahi barik, herrialde horiek sei hamar-kada baino ez dituztela, eta hori, herrialde baten egonkortzerako, oso denbora gutxi dela. Zera zioen *Es*



Africa-n idatzitako artikuluko batean: “Afrikako herrialdeei eskatzen die- te etapa batzuk pasatu ditzaten, eta jar daitezkeen beste herrialde batzuen mailan. Baina herrialde horiek izan dute nahikoa bide egonkortzeko, hanka sartzeko egiteko, horietatik ikasteko eta soluzioak euren kon-

tura bilatzeko. Euren egoeretara moldatzeko aukera izan dute, eta horrela heldu dira gizarte baketsu eta estatu egonkortuak izatera”.

Are, ildo beretik, zenbait kasu argigarri argitaratu ditu: “Gaur egun maila politiko edo ekonomikoan erreferente diren herrialde batzuek ez zuten hobeto jokatu bere garaian. AEBek 90. urteurrena ospatu zuten gerra fratizida batetik irten berri. Frantzia, iraultzatik 80 urtera, *Komuna* gertatu zen. Alemaniak, bateratzearen 60. urteurrena ospatzen zuela, naziak ate joka zituen”.

Horrela, bada, hausnarketa horiei buruz galdetuta, argi dauka Europak eta Mendebaldeak jarraitzen dutela kolonialista eta paternalista izaten: “Nik zinez sinesten dut horrelako eskaerak egitea paternalismo hutsa dela. Ezin diezaiekete eskatu afrikarrei ehundaka urte dituzten estatuen moduan erreakzionatzeko. Sorkuntza prozesu bat da, nazioa astiro doa: ezin daiteke egunetik gauera pentsaera aldarazi”.

KOLONIALISMOTIK ASKATZEKO, PANAFRIKANISMOA

Egun batetik bestera ez, baina bai urtez urte, afrikarrak kontzientzia hartzen eta kolono europarren atzaparretatik askatzeko prozesuak antolatzen dabilta; Komenanek ziurtatu digu egun “mugimendu aldarrikatzaile” handiagoa dagoela garai batean baino. Kontinentearen askapen bide horretan, panafrikanismoa presentzia hartzen ari da, Afrikan bertan ez ezik, diasporako afrikarengan ere bai. Ez da ahaztu behar historian izan duen garrantzia: “Panafrikanismoa funtsezkoa izan da Afrikako independentzien lorpenean eta kontinente barruko aliantzen konfigurazio politiko-instituzionalean”, oroitarazten du Antumi Toasijé historialari eta panafrikanista zailduak, *II Congreso Internacional “Africa-Occidente”*



“PANAFRIKANISMOA FUNTSEZKOA ISAN DA AFRIKAKO INDEPENDENTZIEN LORPENEAN ETA KONTINENTE BARRUKO ALIANTZEN KONFIGURAZIO POLITIKO-INSTITUZIONALEAN”

corresponsabilidad en el desarrollo (“Afrika-Mendebaldea” Nazioarteko II. Kongresua, garapenerako erantzunkidetasuna) liburuiko *La Afrocentricidad: ¿Un nuevo impulso para el Panafricanismo?* (Afroentrikotasuna: Bultzada berri bat Panafrikanismoarentzat?) artikuluan.

Zer da, bada, panafrikanismoa? Terminoaren azalpen sinplea da Afrikako lurraldeen eta diasporakoen arteko batasuna lortzea, Afrikako Estatu Batuak eratzeko eta zama inperialistatik askatzeko. Dena den, mugimendu hau askoz konplexuagoa da, eta intelektual talde batek sortu zuenetik eraldatzen joan da, unean unean ekarpen jakinak egiteko; ehun urte hauetan panafrikanismoa aberasten joan da hainbat pentsalari eta aktibista. “Jatorrizko panafrikanismoak ez zuen deskolonizazioaz ere hitz egiten, diasporako afrikar ondorengoen kondizioaz hitz egiten zuen”, oroitarazi du Dagauh Komenan bolikostarrak.

Berlingo Konferentzia garaian pentsamendu honek ez zuen indarririk historialariaren esanetan, “jendeak bere komunitateko kide izatearen sentimenduak dituelako, ez azalaren kolorean oinarritutako

sentimendu komuna". Halere, XX. mende hasieran hasi ziren panafrikanismoaren ideiei eta printzipioei buruz hausnartzen, Londresen egin zuten lehen Panafrikanismoaren Biltzarrean. Honelaxe deskribatu zuen batzarra Kwame Nkrumah iraultzaile afrikarrak, gerora Ghanako lehen presidente izan zenak: "Afrikako masen asmoen berri izan dugu, liberaziora eramango duten ideologia eta antolaketa moduaren bila dabilzanena", *Afrique-Asie* aldizkariko *L'éternel retour de l'idée panafricaine* (Panafrikanismo ideia-aren etengabeko itzulera) artikuluan irakurtzen dugunez.

1919an Parisko Konferentzia egin zuten eta mugimendua forma hartzen hasi zen. Mundu Gerren ostean hartu zuen presentzia panafri-

kanismoak, batik bat Bigarrenaren amaieran, 1945ko Manchesterreko Konferentziarekin. Ideiatik errealitatera pasatzen hasi zen 1960ko hamarkadan, Afrikako herrialdeen independentzien testuinguruan, eta orduko hartan panafrikanismoaren txinparta piztu zuten zenbait pertsona ikur historikotzat dituzte orain. Garai hartako lider entzute-tsua dira, besteren artean, Kwame Nkrumah, Patrice Lumumba, Julius Nyerere eta Ben Bella, Afrikaren askapena eta batasuna lortzeko borrokatu zirenak.

AFRIKAKO BATASUNA, KOLONIALISMOAREN SEGIDA

Hala ere, panafrikanismoak oztopo ugari izan ditu, eta barne arrakalak ere bai. Komenanek hala laburbildu

du: "Deskolonizazioa amaitu zenean bi talde sortu ziren: panafrikanismoaren alde egiten zutenak Afrika-ko estatu handi baten gisa, eta muga kolonialak mantendu nahi zituztenak". 1960 inguruan handitu ziren aldeak, eta bereizi egin ziren Monroviako ibilbidea, nazionalistena, eta Casablancako ibilbidea, panafrikanistena. Casablancako taldearen buru Nkrumah zen, eta 1885ean inposatutako mugak gainditu eta Afrika federazio handi batean elkar-
tu behar zela sinesten zuen.

1963an argitaratu zuen *Africa must unite* (Afrikak batu behar du) liburua xehatu zituen bere ideiak, baita panafrikanismoaren oinarriak ere. Ghanako lehen presidentearen arabera, nahiz eta Afrikan diferentzia handiak egon, ziur zegoen bata-



suna lortuz gero abantailak gehiago izango zirela trabak baino. “Afrikar nortasuna” deitu ziona mahai gaineratu zuen. Dena den, kontinente kanpoko zein barneko aurkako indarren ondorioz, ideia horiek porrot egin zuten, eta askapen mugimenduaren aurpegi izan ziren asko hil egin zituzten, edota kartzelara nahiz erbestera bidali.

Komenanek penaz ikusten du bi aldeen zatiketa hura: “Zoritxarrez, Monroviako taldea nagusitu zen. Haiek iraunarazi nahi zuten harreman koloniala, lankidetzeta estua. Frantzia pozik zegoen, Afrikako elitea bera ustiapen sistema mantentzearen alde zegoela ikusita. Horregatik, *Françafrique* sistema hau mantendu zen”. Panafrikanismoaren txinparta itzali zutenak egungo Afrikako Batasuneko ildokoak direla gogorarazi dute historialariek.

Iritzi berekoa da Antumi Toasijé: “Mugimendu panafrikanista krisian sartu zen, eta lozorroan egon da. Zeren eta estatu postkolonialetako botere antidemokratikoek diskurtso panafrikanista erabiltzen baitzuten, baina izatez neokolonialismoa sustatzen zuten”. Afrikako Batasuna sortzeak kontinenteko batasun politikorako asmoen “moteltze larria” ekarri zuela dio.

Zergatik kostatzen da panafrikanismoaren ideia herritarrengan txertatzea? Komenanek elementu bat aipatu du: “Ideologia bat izan zen, kanpoko indar batek kontinentea inbaditzearen aurrean eraiki zena. Ez du azalaren kolorean oinarritutako komunitate bateko kide izatearen kontzientzia izpirik. Hori ez da existitzen. Horregatik izan zen posible salerosketa esklabista, kontzientzia hori egon izan balitz ez zen egongo”.

BERPIZTU DA PANAFRIKANISMOA?

Aipatutako iturriek sumatzen dute panafrikanismoaren eta oro har



**“EZIN DIEZAIKETE
ESKATU AFRIKARREI
EHUNDAKA URTE DITUZTEN
ESTATUEN MODUAN
ERREAKZIONATZEKO.
SORKUNTZA PROZESU BAT
DA, NAZIOA ASTIRO DOA:
EZIN DAITEKE EGUNETIK
GAUERA PENTSAERA
ALDARAZI”**



**KONTINENTE KANPOKO
ZEIN BARNEKO AURKAKO
INDARREN ONDORIOZ,
PANAFRIKANISMOAREN
IDIEK, BATASUNAREN
ALDEKOEK, PORROT
EGIN ZUTEN, ETA
MUGIMENDUAREN AURPEGI
IZAN ZIREN ASKO HIL
EGIN ZITUZTEN, EDOTA
KARTZELARA ETA ERBESTERA
BIDALI**

Afrikako askapen mugimenduaren su berri bat. Nabarmentzekoa da, halaber, mugimendu horien protagonista direla batik bat belaunaldi gazteak eta emakumeak. Toasijék batik bat Internetek eskaintzen

dituen baliabideetan jarri du fokua, esanez sareak antolatzen eta ideiak eta artikuluak elkartrukatzeko ezinbesteko tresna izan dela. “Gaur egungo afrikar eta afrikarren ondorengo beltzen belaunaldia euren artean konektatuta dago, eta beste bultzada bat ematen ari dira panafrikanismo berriari, bi mugarritan oinarritzen dena: oinarritzko gizarte-batasuna berreskuratzea, antineokolonialista den identifikazio kultural eta nortasunezkoaren bidez, eta batasunerako estrategia ekonomikoak eta politikoak diseinatzea”.

Komenanek esperantzaz ikusten du Casablanca taldetik gertuago dagoen panafrikanismoa berriz pizten ari dela, “pixkanaka”. Uste du oraingo panafrikanismoaren ideia Europar Batasuneko antolaketaren antzekoagoa dela, “mugak aitortzen dituen baina batasuna nahi duena”. Elementu horrek egungo gatazketan nola eragiten duen argitu du: “Nigerren gertatzen ari denak afrikarren arreta pizten du. Jendeak sumatzen du talde militarren mendealdeko inperialismoaren aurka borrokatzen ari direla Errusiaren laguntzarekin. Afrika Australaren Garapenerako Komunitateak (SADC ingelesezko sigletan) Niger mehatxatu zuenean, Mali eta Burkina Fasok lehen aldiz esan zuten gatazkan sartuko zirela, Niger babesteko. SADCK Gambiarekin gauza bera egin zuenean, inork ez zuen Gambiari laguntzeko asmorik izan. Ez dakit onerako edo txarrerako den, baina gero eta gehiago hautematen ari den bilakaera da”. Zalantzarik gabe, aldaketa etengabeko kontinentea da Afrika, eta Komenanek dioen bezala, bertako estatu berriek denbora beharko dute egonkortzeko; bide horretan, Europako inperialismoaren sustraiek barruan segituko dute, baina zuhaitzak ere usteltzen dira, ez dagokien lurretan baldin badaude.

Estatu kolpeen zerrenda handitzen ari da

Sahelen inguruan azken urte gutxian egon diren estatu kolpeen kopurua deigarria da, eta hori ulertzeko LARRUN honetan aipatu ditugun sakoneko arrazoiei erreparatu diete hainbat adituk. Herrialde bakoitzaren egoera desberdina izan arren, eta azaldutako auziez gain beste hamaika dauden arren, estatu kolpeen zerrenda luzeak erakusten du Afrika erdiko herrialdeak sutan daudela. Frantziako Gobernuak eta Nazio Batuen Erakundeak batik bat gaitzespina erakutsi dute, eta ohartarazi dute Errusiaren eta Turkiaren eragina lur horietan barreiatu dela. Munduko maparen orekak aldatzen ari diren seinale?

TXAD

2021eko apirilaren 11n Txaden hauteskundeak egin zituzten, eta 1990eko estatu kolpetik presidente zen Idriss Deby hautagaiak irabazi zituen berriro ere. 2018an konstituzioa aldatu zuen, sistema presidentzialista are zurrunago egiteko. Hauteskundeetan ez zegoen beste inork irabazteko aukerarik, izan ere, beste hiru hautagai zeuden lehian, baina atzera egin zuten, ikusita zer nolako errepresioarekin erantzun zien kaleko manifestazioei Txadeko Armadak. Herritarrek gobernu aldaketa eskatzen zuten protesta horietan.

Hauteskundearen egunean bertan erreboltak piztu ziren, FACT Alternantziarako eta Konkordiarako Txadeko Fronteak hasita herrialdearen iparraldetik. Gobernuak eta parlamentua desegin ziren. Deby seigarren legealdia bete gabe hil

zen gerra frontean, apirilaren 20an. Haren seme Mahamat Debyk hartu zuen trantsiziorako batzorde militarra eratzeko ardura. Txadeko Armadaren eta FACTen arteko borroka handiak izan ziren, eta ehunka hildako eragin zituzten. Apirilaren 27an N'Djamena hirian protesta handiak izan ziren, eskatzen zuten trantsiziorako batzordea zibilez osatutakoa izatea, eta ez militarrez.

Apirilaren 22an Frantziako Gobernuak publikoki defendatu zuen Debyren semeak gidatutako trantsiziorako batzorde militar batek hartu izana gobernuak, konstituzioaren aurkakoa izan arren. Ordezka-

riek argudiatu zuten, “salbuespen egoera horretan beharrezkoa zen”. Azpimarratzekoa da Frantzia izan dela Txaden aliatu handienetako bat, eta 1.000 soldadu frantses inguru militarren zerbitzura daudela.

GINEA

2021eko irailaren 5ean Ginean estatu kolpea eman zuten militarrek, eta Alpha Conde presidentea bahitu zuten. Gobernuak eta konstituzioa deuseztatu zituzten, eta Mamadi Doumbouya koronelak eta estatu kolpeko buruak iragarri zuen trantsizio gobernuak CNRD Batasunerako eta Garapenerako Batzorde Nazionalaren esku geratzen zela; preso politikoak aske geratuko zirela azaldu zuen. Urtebete lehenago Conde presidentek konstituzioa aldatu zuen, hirugarren agintaldia izan zezan ahalbidetzeko. Protesta ugari eragin zituen horrek, eta errepresioa latza izan zen: oposizioko hautagai batzuk kartzelan hil ziren. Doumbouyak esan zuen herritarrek askatu zituztela elitearen eskueetatik. 83 urte zituen presidentek hamaika urte zeramatzan karguan. 2022ko maiatzean ikerketa judiziala ireki zioten Conderi eta beste goi kargudun batzuei, hilketa, tortura, bahiketa eta bortxaketa leporatuta. Halere, egun gutxira presidente ohia aske utzi zuten, estatu kolpetik atxikita zegoena, arrazoi medikuak tarteko herrialdetik atera behar zuelako.

Ginearrek etengabeko errepresioa eta boterekeria salatzen zuten azken urteetan, eta salatzen zuten giza eskubideak murrizten ari dire-



**ESTATU KOLPEEN
ZERRENDA LUZEAK
ERAKUSTEN DU AFRIKA
ERDIKO HERRIALDEAK
SUTAN DAUDELA.
FRANTZIAKO GOBERNUAK
ETA NAZIO BATUEN
ERAKUNDEAK BATIK BAT
GAITZESPINA ERAKUTSI
DUTE, ETA OHARTARAZI
DUTE ERRUSIAREN ETA
TURKIAREN ERAGINA
LUR HORIETAN
BARREIATU DELA**



ESTATU KOLPEAK 2020TIK 2023RA. Irudi deigarria utzi dute azken urte gutxian izandako Afrikako estatu kolpeek. Adituen esanetan, ez da kasualitatea Sahel inguruan gatazkan egotea. Hauek dira estatu kolpea izan duten herrialdeak: Ginea, Mali, Burkina Faso, Niger, Txad, Sudan eta Gabon.



GABON. Azken estatu kolpea bertan eman zuten, abuztuaren 30ean, hauteskundeetan iruzur egitea egotzi zioten presidente hautatu berriari. Hamalau urte zeramatzan agintean Ali Bongok, harik eta militar talde batek atxilotu zuen arte.

la. Kartzelara sartzea ere ohiko bilakatzen ari zen elitekoa ez zen edonorentzat. Horregatik, besteak beste, herritarrek estatu kolpea ospatu zuten, zabalduak irudietan ikusten denez. Dena den, AEBek eta Europar Batasunak kolpea gaitzetsi zuten.

MALI

2021eko maiatzaren 24an izan zen Maliko estatu kolpea. Assimi Goïta koronel eta presidenteordeak gidatu zuen armadaren kolpea, eta Bah N'daw presidentea atxilo hartu zuten, baita Moctar Ouane lehen ministroa eta Souleymane Doucouré Defentsa ministroa ere. Ordurako egoera nahastuta zegoen herrialdean, besteak beste, 2020ko abuztuaren 24an izan zen estatu kolpe saiakera egin zuelako Goïtak berak, eta Trantsiziorako Kontseilu Nazionala eratuta zegoen ordutik. Baina kontseiluaren barnean tentsioak handitzen ari ziren, militarren eta zibilen artean, harik eta maiatzean eztanda egin zuen arte.


Frantziak, antzinako agintari kolonialak, Maliko arazoetan zuen rola eragindako erresuminak ere asaldura politikoa elikatu zuen. Az-

ken hamarkadan herrialdean nagusi ziren ustelkeria eta ezegonkortasun politikoak ziurgabetasuna zabaldu zuten, eta herritarrak manifestatzen ari ziren. Goïta bera altxatu egin zen testuinguru horretan, garai hartako gobernuaren aurka, eta Ibrahim Bubacar Keita presidentea eta Bubu Cise lehen ministroa atxilo hartu zituzten.

Bahiketa horien ondotik, Keita dimisioa ematera behartu zuten, eta gobernu eta parlamentua desegitea. N'daw estatuburu izatea baimendu zuen armadak, eta Ouane lehen ministro bilakatzea ere bai. Trantsiziorako Kontseilu Nazionalerako eta gobernurako ziren karguak.

BURKINA FASO

Burkina Fason bi estatu kolpe izan ziren 2022an. Bata urtarrilaren 23an izan zen, eta bestea, irailaren 30ean. Herritarrak 2019tik protestetan zebiltzan presidentearen aurka, besteak beste, jihadisten erasoak gero eta ugariagoak zirelako eta ziurgabetasun handia zabaldua zegoelako, batik bat 2015az geroztik, eta herritarrak kexu ziren presidentea ez zela gai krisi hori kudeatzeko.



GINEAKO ESTATU KOLPEA BAINO URTEBETE LEHENAGO CONDE PRESIDENTEAK KONSTITUZIOA ALDATU ZUEN, HIRUGARREN AGINTALDIA IZAN ZEZAN AHALBIDETZEKO. PROTESTA UGARI ERAGIN ZITUEN HORREK, ETA ERREPRESIOA LATZA IZAN ZEN: OPOSIZIOKO HAUTAGAI BATZUK KARTZELAN HIL ZIREN.

Horixe argudiatu zuten, estatu kolpea eman zuten militarrek, MPSR Aberria Babesteko eta Zaharberritzeko Mugimenduaren izenean: "Roch Kabore kargutik kentzera behartuta gaude, jasaten ari garen segurtasun okertze handiagatik". Paul-Henri Sandaogo Damiba kolpearen burua ezarri zuten behin-behineko presidente. Nazioarteko komunikabide handietan herritarren ospakizunak zabaldu ziren, eta Frantziako banderari su ematen zioten irudiak ere ikusi ziren.

Halere, gutxi iraun zuen Dami-bak presidente gisa. Zortzi hilabete geroago, Ibrahim Traorék kendu zion kargua, iraileko estatu kolpean. Arrazoia berbera izan zen: leporatu zioten ez zela gai jihadisten erasoak geldiarazteko, eta azken hilabete horietan Burkina Fasoko lurren %40 estatuarenak ez ziren indarrek hartu zituztela jada. Jakinarazi zutenenez, Errusiaren laguntza izan zuten kolpea burutzeko, hain zuzen Wagner taldearena. Orduko hartan, herritar gutxiagok babestu zuten kolpea, argudiatzen baitzuten horrek ezin zituela konpondu segurtasun auziak.

MALI. Assimi Goïta koronel eta presidenteordeak bi estatu kolpe saiakera egin zituen: 2020ko abuztuan Trantsizioako Kontseilu Nazionala eratu zuen, baina 2021eko maiatzean berriz jo zuen kolpea.



REUTERS

NIGER

2023ko uztailaren 26an Nigerren estatu kolpea eman zuen hamar lagun inguruko militar talde batek, Mohamed Bazoum estatuburua gaitibu hartu eta kargutik kendu zuten. Burkina Fasoren bide beretik, argudiatu zuten presidentea ez zela gai izan “segurtasun arazoak” kudeatzeko eta haren gobernantza zalanztan jarri zuten. Kontuan hartzekoa da Nigerreko lurretan egon direla AEBetako eta Frantziako tropak, besteren artean, Saheleko zonaldeko jihadistien erasoan hazkunderi aurre egiteko dela argudiatuta. Maliko eta Burkina Fasoko estatu kolpeen ondorioz Nigerrera pasatu ziren Frantziako tropak. Izan ere, “frantsesen aurkako sentimendua” handitu dela eta Errusiaren eragina ahalbidetu dutela (Wagner taldearen bidez) ohartarazi dute. Hala ere, Turkia ere Saheleko eremuan esku hartzen ari dela azpimarratu dute.



BURKINA FASON BI ESTATU KOLPE IZAN ZIREN 2022AN. BATA URTARRILAREN 23AN IZAN ZEN, ETA BESTEA, IRAILAREN 30EAN. HERRITARRAK 2019TIK PROTESTETAN ZEBILTZAN PRESIDENTEAREN AURKA, BESTEAK BESTE, JIHADISTEN ERASOAK GERO ETA UGARIAGOAK ZIRELAKO

GABON

2023ko abuztuaren 30ean gauzatu zuten Gabongo estatu kolpea indar armatuek. Uztailaren 26an hauteskunde orokorrak egin ziren, eta Ali Bongok irabazi zituen. 2009tik zegoen presidentetzan, eta hirugarren agintaldia hastera zihoan. Oposizioak hauteskundeetan iruzur egitea egotzi zion, eta tentsioak eztanda egin zuen abuztuaren 30ean, kargua hartu bezain pronto; militarrek atxilotu egin zuten. Hamalau urteotan agintaldi ezegonkorra eta axolagabea izan duela leporatu diote, eta haren erruz Gabongo gizarte kohesioa pitzatu dela: “Kaosera bideratu du herrialdea”. Jada 2018an saiatu ziren Bongoren aurkako estatu kolpea ematen, baina ez zuen aurrera egin. Brice Oligui Nguemak hartu du Gabongo gidaritza, eta ez du hauteskunde berrietarako deirik egin momentuz. Erakunde “demokratikoagoak” eratzea hitz eman du. ●

 ARGIA

3 URTE ARGIA BIZIKLETAN BANATZEN

GASTEIZ
DONOSTIA
IRUÑEA



ZER EGIN DEZAKET?

Zure herrian halako banaketa sistema bat
sustatzeko aukerarik ikusten baduzu,
jarri gurekin harremanetan:

komunitatea@argia.eus (+34) 943 37 15 45